


# Euskaraz hitz egiten zuen katua



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**E**zkarbarte (Nafarroa), 1576. Ozkoidi eta Lizaso komisarioak Orikain auzo nagusira joan ziren ustezko sorginkeria kasu bat ikertzeraz. Martirikorena etxeko Mari Martin zen ustezko sorgina. Eta Juan Lizasok Juan San Martin lekukoaren testigantza jaso zuen idatzia auzi larriago bat pizteko zorian egon zen.

Mari Martinek sei edo zazpi seme-alaba izan omen zituen bere lehen senararekin, baina haren etxe inguruan “katu handi arre bat zebilen, eta susmatzen zen lehen senararekin izan zituen kreaturak katuak hil zituela”. Katuak ez omen zuten etxetik alde egin eta “gau batez, ilundu eta hiru ordura, lekukoa emakume harekin eta bere bi morroirekin zela, katua etorri zen lotsagabe”. Marik katuaren berri emana zionez, lekukoak ezpata hartu zuen eta katuari eraso egin zion. Kolpeak egur bat jo zuen, baina katua bizkarrean zauritu zuen. Orduan, katuak “oso garbi” hitz egin omen zion lekukoari: “baybada, baybada, baybada” esan omen zion hirutan. Han bildutakoak txundituta geratu ziren eta Remon morroiak zera esan omen zion lekukoari: “Gure katu honek ederki daki hizketan”.

Jose Duesok *La caza de brujas en Euskal Herria* (Txalaparta, 2022) liburuan jasotako kasu hau, ez zen bakarria izan Ezkarbarten. Larrainetenako Alvira ere sorgintzat jo zuten, baina lekuko batek gezurtatu zuen haren kasua. Juan San Martinen lekukotza gezurtatu zuenik ere izan zen, hitz egiten zuen animalia Mari Martin bera zela esanez, katuaz mozorrotuta.




Brueghel Zaharrak grabatu honetan sorgina erratza gainean hegan irudikatu zuen lehenengoz 1565ean, eta irudia berehala errotuta geratu zen gizartean.

Eta Aro Modernoko Europan ere ez zen kasu bakana izan, jakina. Erdi Aroaren amaieran. Izurri Beltzak eragindako krisi ekonomiko, sozial eta espiritual betean, eliza katolikoak etsai berri bat asmatu zuen bere posizioa indartzeko. Deabruaren kontzeptu beldurgarriagoa sortu zuen, kristautasuna sunsitudako zuena eta jarraitzaile asko zituen. Teologoak sorginen eta akelarreen kontzeptuak elikatzen hasi ziren. Baina existitzen ez ziren deabruzaleak hezurraragizko bihurtu behar zituzten eta herritarrek lagundu zieten lan horretan. Deabruari berari zioten izuari salatua

izateko beldurra gehitu zitzaion. Salatuak torturapean ustezko sorgin gehiago seinatzen zituzten. Eta paranoia kolektiboa baliatu zuten zenbaitek auzokoekin zituzten tirabirak “konpontzeko”.

Salaketa kopurua handitu ahala, lekukoaren irudimena ere handitu zen. Margolariek ikonografia fantasiatsua sortu zuten sorginkeria inguruan eta salatzaile beldurtu, kutsatu edota interesatuen irudimena akuilatu. Hala, Brueghel Zaharrak erratzen gainean hegan egiten zuen sorgina asmatu zuen 1565ean eta Orikaingo Juan San Martinek, 11 urte geroago, euskaraz hitz egiten zuen katua. ●



ZADAR UNIBERTSITATEA

## 7.000 urteko bidea

Korčula Kroaziako uhartea da egun, baina antzina kontinenteari lotuta zegoen. Bertan dago Soline aztarnategi neolitikoa, garai hartan Adriatikokoan zabaldu zen Hvar kulturaren erakusle. Aurten go kanpaina, urpean egindako indusketetan, harrizko galtzada bat aurkitu du Zadar unibertsitateko Mate Parica

buru duen taldeak, eta egur arrastoak datatuta, 6.900 urte dituela jakin dute. Kanpaina berean Neolito Aroko beste herrixka bat ere topatu dute. Beraz, duela ia 7.000 urte herrixka batetik bestera joateko 4 metro zabal zen errepidea erabiltzen zuten, egun urpean dagoen eremuan. ●